



Proiektuak-2015

**BERMEOKO ARRAIN-LONJA ZABALTZEKO 1.
 PROIEKTU BERRITUA (2015eko azaroa)**

Laburpen-fitxa



Deskribapena	Egilea/Kontratista/Data	Zenbatekoa	Epea
Proiektuaren idazketa	Ramón Ruiz Cuevas Peña	2.499.727,27 € (BEZa barne)	9 hilabete

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Bermeoko egungo arrain-lonja 1989koa da. Eraikina arraina saltzeko eta erosteko erabiltzen da, enkanterako lonja gisa, baita beste erabilera batzuetarako ere; esaterako, lehen solairuko bulegoak administrazio-kudeaketarako erabiltzen dira. Eraikinaren profil orokorra beheko solairukoa da zabalera osoan, erdigunean izan ezik; bertan eraikin bat dago, eta horrek, lehen solairuaz gain, teilatupea ere aprobetxatzen du, atiko modura. Funtzionalki, beheko solairua erabiltzen da arraina lekualdatzeko, prestatzeko eta ikusgai jartzeko solairu ireki gisa. Taberna eta enkante-gela ditu lonjaren mendebaldeko muturrean. Ekialdean, berriz, hozte-gela; gaur egun paletak eramatekoak gordetzeko erabiltzen da. Horrez gain, mantentze-lanetarako gela bat eta transpaletak gordetzeko eremu bat ere baditu. Erdiko gunean, bi sexuentzako komunak eta lehen aipatutako bulegoen gunera daraman eskailera daude.

**Egungo Ionjaren AZALERAK:**

BEHEKO SOLAIRUA:	1.823,25 m ²
LEHENENGO SOLAIRUA:	389,40 m ²
ATIKOA:	201,00 m ²
BEH. SOLAIRUAREN OKUPAZIO-AZ. GUZTIRA:	1.823,25 m ²
LONJAKO AZ. ERAIKIA GUZTIRA:	2.413,65 m ²

Eraikitako espazioa ez da nahikoa egungo beharretarako. Honako arazo hauek atzeman dira:

- Ez dago kutxak eta askak garbitzeko instalaziorik. Ez dago kutxa eta aska garbiak gordetzeko leku estalirik.
- Ez dago saregile eta neskatilek lan egiteko instalaziorik; beraz, aire zabalean egin behar dute lan.
- Deskarga gehieneko uneetan, erakusketa- eta salmenta-gela txiki geratzen da.
- Egungo izotz-fabrika ez da efizientea eta lekua hartzen du kirol-kaian; ondorioz, ezin da kirol-eremuan beharrezkoa den kapitaintza eraiki.

Arazo horiek konpontzeko, proiektuan jasotako eraikinak beheko solairua, lehen solairua eta estalkia ditu. Beheko solairuan kutxak garbitzeko trena, asken biltegia eta izotz-fabrika daude. Eraikinaren bi solairuak lotuta daude, bertikalki, karga-jasogailuaren eta eskailera baten bidez. Eskailera estalkiko gune batera arte iristen da; bertan makineria gordeko da. Proiektuaren ideia oso sinplea da: oraingo eraikinari modulu bat gehitu zaio, geometria berarekin; hala, arraina saltzeko hiru espazio modulagarri sortzen dira beheko solairuan (dena den, hirugarren azpilonja beheko solairuan kutxak garbitzeko eta biltegiratzeko erabiltzen da). Hiru azpilonja horiek (L1, L2 eta L3) labarraren ondoko komunikazio-ardatz baten bidez lot daitezke. Azpilonja berria salmentarako erabiliz gero, ezohiko arrantza dagoen kasuetan, ardatz hori erabiliko da kutxak, izotza eta arraina batetik bestera mugitzeko.

Funtzionamendua hainbat produkturen zirkulazioaren bidezkoa izango da. Sareak 1. solairuko fatxadako bi zulo handietatik deskargatzen dira, itsasontzietatik labarrerantz. Zulo horietatik argia ere sartzen da, saregileek lan egin dezaten. Kutxek lur-itsaso fluxuari jarraitzen diote. Lurretik zikin iristen dira, garbitu egiten dira, biltegiratu egiten dira eta garbi ateratzen dira, labarrerantz. Izotza labarrerantz banatzen da, lurrean eta itsasontzietan kargatzeko aukerarekin. "Kutxazain automatiko" eran hartu ahal izatea ere aurreikusten da, txartelarekin. Hau da zabaldutako eremuaren azalera:

BEH. SOLAIRUKO AZ. ERAIKIA GUZTIRA:	1.029,80 m ²
LONJAKO AZ. ERAIKIA GUZTIRA:	1.037,50 m ²

**INGURUMEN-HOBEKUNTZAK**

- Izotz-fabrika olatu-hormatik arrantza-kaira lekualdatzea. Portuzarretik igarotzen den trafikoa murriztea. Instalazioak eguneratzea, eraginkortasun energetiko handiagoa lortzeko: izotz-fabrika, elektrizitatea, argiztapena, eta abar.
- Material iraunkorrak erabiltzea. Hondakin eta isurketen kontrola hobetzea.

PAISAIA-INTEGRAZIOA

Egungo eraikinarekiko errespetua eta harmonia lortu nahi da, haren ageriko hormigoizko oinaldea luzatuz, eta moldura nagusiei beren horretan eutsiz. Egitura-modulua errepikatu egin da, eta, hala, eraikinaren antolamendua egokia izatea lortu da; lehendik zegoen eraikinak eta zabaldutako eremuak bat egiten dute arkitekturari dagokionez.